



## **PLAZAOLAKO MENDI BIZIKLETA ETA MARATOI** **ERDIAREN PRENTSA OHARRA**

Igandean, irailaren 20an Plazaola Natur Bidetik antolatu ziren lau lasterketetan 700 parte hartzaile baino gehiago izan genituen. Aurten, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Lekunberriko, Larraungo, Leitzako eta Andoaingo udalaren laguntzarekin eta Araitz, Betelu, Areso, Larraun eta Lekunberriko Kirol Komunitatearekin, Plazaola Natur bideko **VII. Mendi bizikleta martxa** eta **IV. Maratoi Erdia** antolatu zuen. Ekitaldi hau aurrera eramateko ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuko Turismo Saileko laguntza.

Egun hau, Europako natur bideen eguneko Mugimendu Astearen barruan dago, eta Espainiako Trenbide fundazioaren eta Europako Natur bideen elkarteen laguntzarekin kontaktzen du.

Lasterketarik beteranoenak, Mendi Bizikleta Martxa, parte hartzaile dezente izan zituen, nahiz eta eguraldi aurreikuspenak oso onak ez izan. Baina, Maratoi erdian aurreizena emana zutenak baino jende gutxiago atera zen. Natur bidean ibili zirenei goiz guztian zehar euriak eutsi egin zien.

### **VII. Mendi Bizikleta Martxa**

Mendi Bizikleta Martxan, adin ezberdineko 400 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten.

#### Irteera:

- 230 pertsona Andoaindik atera ziren (40 km) goizeko 10etan
- 102 txirrindulari Leitzatik (15 km) goizeko 11.30etan
- 42 hurrek parte hartu zuten haur-martxan (4 Km) pailazoan laguntzarekin, goizeko 12.30etan

#### IV. Maratoi Erdia

Aurten, 189 lasterkarik aurre-izena emana zuten arren, 150 lasterkari baino gehiago irten ziren goizeko 9.30etan Leitzatik. Ibilbidea, Leitzako Erreka auzoan hasi (Leitzako Plazaola geltokitik 2 Km-tara) eta Mugirotik pasa ondoren Lekunberrira iristen dira, horrela 21 Km Plazaola Natur Bidetik egiten dituzte.

#### MARATOI ERDIAREN SAILKAPENA

Gizonezkoak		
	Lasterkaria	Denbora
1	Jonan Rodriguez Bakeriza	1:16:55
2	Hassan Aitchaou Aitali	1:18:08
3	Aimar Agirresarobe Lizarra	1:18:08
4	Unai Narbaiza Gantxegi	1:19:07
5	Unai Señorán	1:20:16
6	Iker Larrea Soraluze	1:20:43
7	Eduardo Ustarrotz Zubikoa	1:20:55

Emakumezkoak		
	Lasterkariak	Denbora
1	Jasone Altadill Garro	1:44:07
2	Ana Mir Valencia	1:45:50
3	Cristina Ciorba	1:48:18
4	Marina Gomez Ordoñez	1:48:50
5	Ana Lopez Flamarique	1:52:38
6	Alizia Villar Casado	2:04:12
7		

Lasterketan zehar hainbat horniketa leku kokatu zituzten eta lasterketa amaitu zenean, ogitartekoak, yogurrak, zukuak, fruta, gozokiak, ura... banatu zituzten Lekunberriko geltokian.

Kolaboratu zuten: FRUTAS DIONI, AGROZUMOS S.A. , MANANTIALES DE BETELU S.A., PANASA, KAIKU eta CAN FUNDAZIOAK. Oroitzapen modura motxila bat banatu zen eta 30 sari baino gehiagoko zozketa burutu zen; egonaldia landa turismoan, menu dastaketak, kamixetak...

- Aralar Zalditegia (Baraibar)
- Anatxonea Gaztandegia (Baraibar)
- Musunzar Jatetxea (Leitza)
- Artzeluze Zur lanak - Tallas (Lekunberri)



- Aralar Kamping-a (Lekunberri)
- Goiko Lore Denda (Lekunberri)
- Txastarena Apartamentuak (Urritzola-Arakil)

Guzti hau Partzuergoko kideek eta kolaboratzaileek eskaini zuten. Lasterketa Gurutze Gorria eta Baztan Bidasoa Anbulantziengatik babestuak egon zen arren, nabarmendu behar da lasterketan zehar ez zela ezbehar larriarik egon.

Aurtengo lasterketan hainbat berrikuntza egon ziren, **Txip-en instalazioa** lasterkarien denbora neurtzeko eta **web orri berria**, parte hartzaileei gauzak errazteko, bai urre-izena ematean eta baita ere parte hartzaileak informatuak izateko: [www.plazaolakirolak.org](http://www.plazaolakirolak.org)

### UITZIKO TUNELA

Aurten, Uitziko tunela irekia egon da egun honetarako baina itxita jarraituko du 2010eko udaberri arte, konponketa lanekin jarraitu ahal izateko.

Gogoan hartu behar da, 2680 metroko tunel hau izan dela erronkarik handiena natur-bidearen egokipenerako. Gaur egun, Nafar Gobernuaren Turismo Sailak lagunduta berreskuratzen ari da, burutze-aurrekontuen %60 betez, bai eta C.A.N. fundazioko 10.983. proiektua bozkatu dutenen laguntzari esker ere. Plazaolako lagunei proiektu honi eusteko eskatzen jarraitzen zaie, plurianuala delako eta bertan ekintza ezberdinak sartzen bait dira (segurtasuna, argiztapena...).